

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 3690

*EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 19koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita AVACOI – Euskadiko Suteen Aurkako Ekipo eta Sistema Babesleen Instalatzaile edo Mantentzaileen Enpresen Elkartearen estatutuak aldatzeari dagokion dokumentazioa gordailutu dela, eta horren berri ematen baita (Gordailuaren kodea: 76/0/00063).*

Erakunde Sindikalen Estatutuak Gordailutzeko Bulego Publiko honetan espedientea hasi da AVACOI – Euskadiko Suteen Aurkako Ekipo eta Sistema Babesleen Instalatzaile edo Mantentzaileen Enpresen Elkartearen estatutuak aldatzeari dagokion dokumentazioaren gordailua dela-eta, zeina AVACOIk aurkeztu baitu. Espediente hori ikusirik, ebazpena eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

### AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2025eko maiatzaren 9an aurkeztutako dokumentazioaren bidez, AVACOI – Euskadiko Suteen Aurkako Ekipo eta Sistema Babesleen Instalatzaile edo Mantentzaileen Enpresen Elkartearen estatutuak aldatzeari dagokion dokumentazioa gordailutzeko eskatu da.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa bat dator Sindikatu eta Enpresa Erakundeen Estatutuak Gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan ezarritakoarekin.

Hirugarrena.– Horren jarduketa-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da, eta eremu funtzionala estatutuetan ezarritakoa izango da.

Egitate horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Sindikatu- eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeko eskumena organo honi esleitu zaio azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 13.m) artikuluan –Dekretu horrek Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du–.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikatu behar den araudi substantiboa xedapen hauetan dago jasota: apirilaren 1eko 19/1977 Legean eta Sindikatu eta Enpresa Erakundeen Estatutuak Gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan.

Hirugarrena.– Gordailutzeko aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, zuzenbidezkoa dela egiaztatu da, eta, horrenbestez, bidezkoa da gordailutzeko onartzea aldaketaren aktari eta AVACOI – Euskadiko Suteen Aurkako Ekipo eta Sistema Babesleen Instalatzaile edo Mantentzaileen Enpresen Elkartearen estatutuei dagokien dokumentazioa eta egitate horren publizitatea egitea.

Aipatutako oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– AVACOI – Euskadiko Suteen Aurkako Ekipo eta Sistema Babesleen Instalatzaile edo Mantentzaileen Enpresen Elkartearen estatutuak aldatzeari dagokion dokumentazioa gordailutzeko agintzea.

Bigarrena.– Gordailutze hori EHAAn argitara emateko agintzea, Sindikatu eta Enpresa Erakundeen Estatutuak Gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako moduan.

Hirugarrena.– Ebazpen honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Laugarrena.– Edozein interesdunek aztertu ahal izango du gordailututako agiria, baita kopia eskatu ere. Agiria aurkaratu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salaren aurrean, Lan-arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean (2011ko urriaren 11ko BOE) xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 19a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.